

SESSION 2011

**CAPES
CONCOURS EXTERNE
ET CAFEP**

**Section : LANGUES RÉGIONALES
BASQUE**

**ÉCRIT 1
COMMENTAIRE DIRIGÉ ET TRADUCTION**

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Le commentaire dirigé et la traduction sont à rédiger sur des copies distinctes.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : Hormis l'en-tête détachable, la copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.

ITXASUNTZI ZAHARRA

- 5 Zeiharka zethorren untzia
bide zehaztuak utzia
baleran zebilen uretan
zurbil mariñelak zubitik
so ziran, joan zoan urari.
- 10 vela beltz zabalak haizeak
goizaldebako lui hezeak
joiten ez zituen haboro
eta arraunak oro geldirik
aurrera badarik zihoan.
- 15 oiha beltz hiruki zabalak
arratseko aize jabalak
hunki ez arren, zerk zeroan
untzi hori arin aurrera?
mariñel ixilok dakite.
- 20 lurralde adeitsu jathorren
albotiko bidez zethorren
arbatu gabeen untzia
lur on irritsuak izanak
gatik, ez ziraden gelditu.
- 25 izaro soinundun ozenak,
aintzinako jainko zuzenak
heietan baitziran jauresten
marmorezko etxe goretan,
gelditu ordea ez ziran.
- 30 mendi, lur, elhurtza guritan
dizdir argizari zuritan,
zahartu zuhurren egoitzak
bele iragarleen elhaide,
han ere geratu ez ziran.
- 35 izaro heiotan neskatxak
ekhi-urrezko soin exkaxak
ondartzan zautzanak irrikiz,
mariñelen solhaz-gain bakhan,
eta han geratu ez ziran
- 40 ez irlak ekhitan, ez lurrak
jaunsten zituenak elhurak,
zekhusten guztitik deus ere
gogarako ukhan ez zuten
aintzina joan ziran untzian.

untziak zekhartzan hil soak;
hartaratu itxas-usoak
begira bat eman ondoren
heganatzen ziran urruti
45 untziko gizonak urruinduz.

untziko uraren lankaden azantzaz,
ez iguzkiaren erlantzaz
axoltzen ez ziran batere
hoik untzilariok: alphertu
50 baitziran bideko asperraz

untzia ber-ogüz utzirik,
bihotz-minak oro hezirik
hondamen haiduru zegozen,
nahi endurregiz ez ausart
55 untzia suthautsez jauzaraz.

Hiztegia/Aide lexicale:

Baleran: kulunkaz

Lui: kontra-haize

Arbatu: aingura bota

Jauretsi: adoratu

Elhaide: ezagun

Urruindu: arbuiatu, mespretxatu

Heganatu: sakabanatu

Erlantza: dirdira, leinuru

Ber-ogüz: berez, bere gisa

Endur: flako

Suthauts: polbora

Jon Mirande

1-Poetaren barne egoera baten proiektioztat har ote daiteke olerki hau?

2-Aztertu nola olerkiaren egitura eta erritmoak bere mezu ezkorren adierazpena laguntzen duten.

3-Errana izan da Miranderen imaginario poetikoa mitologia eta literaturaren ezagutza sakonean oinarritzen dela. Agerian eman olerki honetan darabiltzan erreferentziak.

4-Nola ulertu behar da olerkiaren estetizazioarako joera? Zein jarrera existentzial salatzen du Miranderengan? Ezagutzen ote duzu beste adibiderik olerkariaren obran?

THÈME

Les jumeaux

Un peu partout dans le monde on croit, ou on a cru, qu'un lien existe entre les jumeaux et les phénomènes météorologiques : les jumeaux prédisent le temps et même le commandent, provoquent ou font cesser la pluie, le vent et la tempête. La question est de savoir s'il s'agit là d'un lien privilégié ou si cette croyance fait partie d'un ensemble dont il serait arbitraire de l'isoler. Chez les humains, la naissance de jumeaux constitue un phénomène relativement rare ; il est aussi (ou du moins il l'était) imprévisible. L'imagination populaire l'associait donc à d'autres phénomènes imprévisibles et pas nécessairement d'ordre météorologique. Ainsi les jumeaux seraient doués pour la divination, auraient le pouvoir de jeter des sorts, de se transformer en animaux surnaturels, d'éloigner les épidémies et autres maux qui frappent le bétail et les jardins, de guérir certaines maladies ; ils seraient insensibles aux morsures et piqûres de bêtes venimeuses, donneraient le succès à la chasse et à la pêche, etc.

Quand les Kwakiutl voulaient avoir du beau temps, ils peignaient en rouge le corps des jumeaux, ils les habillaient avec recherche et les faisaient déambuler en public. S'ils désiraient la pluie, pour que les cours d'eau grossissent et que les saumons remontent plus aisément, ils lavaient les jumeaux, oignaient d'huile leur chevelure et peignaient leur corps en rouge et en noir. C'est aussi en oignant de graisse la chevelure d'un ou deux jumeaux que les Salish de la côte obtenaient que le vent se levât [...]. Les Kwakiutl croyaient que l'influence des jumeaux sur le temps grandissait avec l'âge. « Quand il y a du brouillard, disaient-ils aussi, un jumeau pouvait faire comme s'il ramassait le brouillard dans son couvre-chef qu'il pressait ensuite contre son corps. On croyait qu'il s'incorporait le brouillard et que le ciel allait s'éclaircir. » Les jumeaux pouvaient aussi appeler les vents de n'importe quelle direction en leur parlant dans une tige d'algue creuse. Un jumeau n'avait qu'à laisser sa chevelure traîner dans l'eau pour que les saumons s'y prennent, comme pêchés à la ligne

(d'après Claude Lévi-Strauss, *Histoire de lynx*)

VERSION

Burrunban badoazkigu otoak mazela batean harat, beti iparrerat buruz. [...] Sagardirik ez dugu bizkitartean ikusten. Adituaren adituz, uste ginuen Gipuzkoa sagar-ondoaz landatua zela guzia ! Ontsa nahi ginuke jakin nun egiten diren bada sagarno gozo, ezti, ahotik ezin-utzi hek, Normandiakoak heien aldean ez baitira pitar batzu baizik [...].

Urrun ote gira bada oraino Donostiatik ? Ez dut uste. Eta oroitzeak berak atsegabetzen nu.

Garbiki erraiteko, ez dut maite Donostia. Aspaldiskoan, urtetik urtera ttipitu zait, ez bakarrik hiriarentzat naukan amodioa, bainan oraino tokiaren beraren alderakoa. Iduri zuen hunek ohantze bat, laborantzako alor bat, baratze bat kasik. Itsas-aldetik, dakizun bizkar konkor harek berak beiratzten zuen. Ez osoki, haatik ; arteka batetarik uzten zuen itsaso-muttur bat sartzera alorreraino, zabaltzera ere apur bat, eztiki. Arteka haren erditik xutitzen zen mendoi kazkar arkaiztun bat, iduriz itsasoaren oldarra hobeki hausteko oraino [...].

Orai, baratze, alor, pentze, iraztor, bazkaleku hek, dena etxe dira. Egoitzetako harri lantuek dituzte estali. Badela egoitza ederrik ez dut ukatuko, bainan arras gutiak dira begientzat bezala adimenduarentzat eder direnak. Geihenek badute eskas bat: arimakoa.

Egileek beldurra badut etzakiten *Olerkia* zer den. Erosoan bizitzea, ba; ez, ordean, zeru-alde noizean behin gogoaren airatzea.

Mediterranea etzuketen ezagutzen; Grezian gaindi etzitazken ibiliak nihoiz.

Jean Etchepare,
Beribitez, 1931